

## ANEXO N.º 2

IMPORTE BRUTO HORAS EXTRAORDINARIAS  
PARA 2000

IMPORTE BRUTO DE LAS HORAS EXTRAORDINARIAS PARA 2000

## CATEGORÍAS

*Importe bruto*  
*Hora extraordinaria*

– Cobrador de Peaje de 1. <sup>a</sup>	4.370
– Cobrador de Peaje	4.049
– Cobrador de Peaje en periodo de prueba	3.282
– Cobrador-Ordenanza	3.764
– Oficial de Oficio de 1. <sup>a</sup>	4.276
– Oficial de Oficio de 1. <sup>a</sup> , en periodo de prueba	3.487
– Oficial de Oficio de 2. <sup>a</sup>	3.754
– Oficial de Oficio de 2. <sup>a</sup> , en periodo de prueba	3.018
– Oficial de 1. <sup>a</sup> de Maquinaria de Peaje	4.417
– Oficial de 1. <sup>a</sup> de Maquinaria de Peaje, en periodo de prueba	3.612
– Oficial de 2. <sup>a</sup> de Maquinaria de Peaje	3.597
– Oficial de 3. <sup>a</sup> de Maquinaria de Peaje	3.597
– Operario de Comunicaciones	3.902
– Peón Especialista	3.580
– Peón	3.481

**KULTURA SAILA****Zk-1009**

AGINDUA, 2001eko otsailaren 15ekoa, Kultura sailburuarena, 2000ko otsailaren 23ko Agindua 2001eko jardunaldian aplikatzeko epeak jarri eta egokitzeko dena; Agindu horren bitartez, Euskadiko Gazteak Lankidetzan deritzon programarako urte horretako deialdia egin zen.

Euskadiko Aurrekontuen Erregimenari buruzko legezko xedapenen Testu Bateginaren IX. Tituluan ezarritakoaren babesean, 275/2000 Dekretua eman zen, abenduaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen pentzutan emandako laguntzak eta dirulaguntzak arautzeko zenbait xedapenen indarraldia luzatzeko bidea ematen duena; horri jarraituz, Jaurlearitzak eta gainerako Sailek zein Autonomiadun Erakundeek epeak, betekizunak eta beharrezko diren baldintza guztiak molda ditzakete 2001eko jardunaldian aplikatzeko.

Ildo horretatik, Kultura sailburuak otsailaren 23ko Agindua eman zuen 2000ko jardunaldirako, Euskadiko Gazteak Lankidetzan deritzon programarako urte horretako deialdia egiteko (2000ko martxoaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 44. zka.); horrenbestez, egokitzen jotzen da hura aplikatzeko beharrezko diren epeak eta betekizunak egokitzea 2001 urteko jardunaldirako.

Horrenbestez,

**DEPARTAMENTO DE CULTURA****Nº-1009**

ORDEN de 15 de febrero de 2001, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen y adaptan los plazos necesarios para la aplicación durante el ejercicio 2001 de la orden de 23 de febrero de 2000, por la que se convoca el programa Juventud Vasca Cooperante, para el año en curso.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Texto Refundido de las disposiciones legales sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 275/2000, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para la aplicación durante el ejercicio 2001.

En este sentido, para el ejercicio 2000, se dictó la Orden de 23 de febrero de 2000 de la Consejera de Cultura por la que se convoca el programa Juventud Vasca Cooperante, para el año en curso, (publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, Num. 44 de 3 de marzo de 2000), por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2001.

En su virtud,

## XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Eskabideak aurkezteko epea.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako deialdia egin zuen 2000ko otsailaren 23ko Aginduan ezarritako dirulaguntza-deialdian 2001 urtean parte hartu nahi dutenek hilabeteko epean aurkeztu behar dituzte eskariak, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

**2. artikulua.**— Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Honen bitartez emango diren dirulaguntzak eskatu nahi dituztenek eskabidea aurkeztu behar dute 2000ko otsailaren 23ko Aginduko Eranskinean datorren ereduari jarraituz; horrekin batera, eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu behar dute. Hori dena Lurralde Historikoetan dauden Kulturako lurralde-zerbitzuetako batean aurkeztu beharko da, edo zuzenean, edo Administrazio eta Prozedura Legean ezarritako prozedurakoren bat erabilita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa).

**3. artikulua.**— Diru-baliabideak.

Agindu honen bidez ezarritako dirulaguntzak emateko xedez, 21.321.670 pezeta/ 128.145,81 euro zuzenduko dira 2001eko jardunaldi honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretara bideratutako aurrekontu-ataletik.

## XEDAPEN GEHIGARRIA.

Herritar guztiek ezagut ditzaten era errazago erabil ditzaten, Agindu honen I. Eranskinean agertzen dira 2001. urteko jardunaldirako aurreikusitakoak eta 2000ko otsailaren 23ko Aginduan ezarritako erregimen orokorra bat eginda.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lebena.**— Agindu honek administrazio-bidea ixten du, baina, dena den, interesatuek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan; horretarako, bi hilabeteko epea izango da, honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**Bigarrena.**— Honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko otsailaren 15a.

Kultura sailburua,  
M.<sup>a</sup> CARMEN GARMENDIA LASA.

## RESUELVO:

**Artículo 1.**— Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la Convocatoria de ayudas establecida por Orden de 23 de febrero de 2000, por la que se convoca el programa Juventud Vasca Cooperante, en el ejercicio 2001 será de un mes, a partir del día siguiente a la publicación de la presente.

**Artículo 2.**— Solicitudes y documentación a presentar.

Las personas solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente, deberán dirigirlas conforme al modelo que se incluye como anexo en la Orden de 23 de febrero de 2000, junto con la documentación exigida a los Servicios territoriales de Cultura existentes en cada uno de los Territorios Históricos, bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 3.**— Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, durante el presente ejercicio 2001, la cantidad de 21.321.670 pesetas/ 128.145,81 Euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

Para general conocimiento y facilitar el uso por los posibles interesados, se incorpora como Anexo I a la presente Orden, el texto resultante de refundir las previsiones efectuadas para el ejercicio 2001, al régimen general establecido por la Orden de 5 de abril de 2000.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

**Segunda.**— La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 2001.

La Consejera de Cultura,  
M.<sup>a</sup> CARMEN GARMENDIA LASA.

## I. ERANSKINA

## OINARRIAK

1. oinarria.– Agindu honen bitartez, 2001eko jardunaldian «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» Programarako dei egiten da, Euskadiko Herri-Erakundeek eta Gobernu Kanpoko Elkarrekin batera Hirugarren Munduko Herrietan antolatzen dituzten elkarlan eta lankidetzak jardueretan batik batik elkartasun kultura suspertu eta, aldi berean, bertan parte hartzeko modua ere arautzen da.

2. oinarria.– Aurretik Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorretik edo erakunde autonomiadunetatik ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza bat jaso bada, programa honetan parte hartu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da laguntza hori itzultzeko edo zigortzeko inolako prozesutan sartuta ez egotea. Gainera beste baldintza hauek ere bete behar dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan auzokidetasun administratiboa izatea edo, bestela, euskal izaera politikoa, Autonomia Estatutuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Eskabidea aurkezterakoan 20 urtetik gorako adina izatea eta 31 urtetik beherakoa, 2001eko abenduaren 31rako.

c) Jarduera non burutuko den kontuan hartuta, bertako hizkuntza menperatzea.

3. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea hilabeteak izango da, Agindu hau indarrean jartzen den egunetik hasita.

4. oinarria.– 1.– Eskabideak, Hautaketa batzordeburuari zuzenduta, Lurralde Historikoetako Kulturako Lurralde Zerbitzuetan aurkeztuko dira, bai zuzenean, bai azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako bideetarik edozein erabiliz.

2.– Agindu honen eranskinean emandako eskabide inprimaki ofizialarekin batera, bertan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5. oinarria.– Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzak, eskatzaileek aurkeztutako eskabideak osatu gabek direla edo akatsak dituztela ikusiz gero, interesatuei emango die horren berri. Jakinarazpena jasotzen den egunetik hasita, hamar egun balioduneko epea emango zaie dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko eta, epe hori bukatuta, eskatutako dokumentazioa ez bada era egokian zuzentzen, eskaerari uko egin diotela ulertuko da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan ezarritako onespenez ondorioetarako Ebazpena emanez.

6. oinarria.– 1.– Informazio eta orientazio aldiaren sartuko diren parte hartzaileak aukeratzeko proposamena egiteko eta, ondoren, azken hautaketa proposamena egiteko, Hautaketa Batzordea eratuko da modu honetara osaturik:

## ANEXO I

## BASES

Base 1.– Se convoca, para el ejercicio 2001, el Programa Juventud Vasca Cooperante, destinado a propiciar una cultura de solidaridad de las personas jóvenes del País Vasco preferentemente en las acciones de cooperación al desarrollo en los países del Tercer Mundo promovidas conjuntamente por las Instituciones y Organizaciones No Gubernamentales de Euskadi, y se regula la participación en el mismo.

Base 2.– Podrán participar en el presente Programa, aquellas personas que, no estando incurso en ningún procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener vecindad administrativa en la Comunidad Autónoma de Euskadi u ostentar la condición política de vasco o vasca de conformidad con lo establecido en el Base 7 del Estatuto de Autonomía.

b) Tener una edad superior a 20 años en el momento de la presentación de la solicitud e inferior a 31 años al 31 de diciembre de 2001.

c) Conocer el idioma internacional del país donde se desarrolle la actividad.

Base 3.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día que surta efectos la presente Orden.

Base 4.-1.– Las solicitudes, que se dirigirán al Sr. Presidente de la Comisión de Selección, se presentarán, bien directamente, bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en los Servicios Territoriales de Cultura en cada uno de los Territorios Históricos.

2.– Junto a la solicitud, según el impreso oficial del Anexo II de la presente Orden, deberá aportarse la documentación señalada en el mismo.

Base 5.– Si la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura observase que la documentación presentada por las personas solicitantes es incompleta, lo pondrá en conocimiento de las mismas y les concederá un plazo de diez días hábiles, a contar desde el día de recepción de la correspondiente comunicación, para su subsanación, transcurrido el cual, sin haberla efectuado, se les tendrá por desistidos de su petición previa Resolución emitida al efecto de conformidad al artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Base 6.– 1.– Para efectuar la propuesta de preselección de los y las participantes para la fase de información y orientación y la posterior propuesta de selección, se crea una Comisión de Selección compuesta por:

– Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzako Gazteria burua, edo berak izendatutako pertsona bat. Batzordeburua izango da eta, kalitate botoa izanik, azken hitza izango du boto-berdinketa gertatuz gero.

– Lehendakaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzako teknikari bat.

– Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkari bat, kontseiluak proposatuta eta Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendariak izendatua.

– Hirugarren Munduaren Garapenerako Laguntza eta Lankidetzako Fondoko Kudeateka Batzordeko ordezkari bat, Erakunde horrek berak proposatuta eta Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendariak izendatua.

– Gobernu Kanpokoak izanik Garapen Lankidetzarako Programetan diharduten Erakundeetako hamar ordezkari, gehienez, Kultura Sailak proposatuak Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendariak izendatuak.

– Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa, Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendariak izendatua; ahotsa izango du baina ez, ordea, botorik.

Hautaketa Batzordeak, egoki iritziz gero, arlo horretako beste adituei ere eska diezazkieke aholkuak eta laguntza. Laguntzaile horiek, ordea, ahotsa bai baina ez dute boto eskubiderik izango.

2.– Batzordekideak abstenitu egingo dira edo ezeziak izan daitezke azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

7. oinarria.– 1.– Hautaketa Batzordeak, lehen aukeraketa proposatzerakoan, gehienez jota 170 parte-hartzaile aukeratu dituzte informazio eta orientazio aldirako eta honako ezaugarri hauek hartuko dituzte kontuan:

a) Urte honetan egiten ari diren lankidetzako jardueretako egokienak izan daitezkeen eskola-agiriak, lanbide-heziketak eta eskabidea egin duenak dituen beste lako ikasketak batzuk, %30eraino gehienez.

Nahiz eta hauek izatea beharrezko ez den, honako hauek dira lankideak burutuko dituen garapen proiektuetarako egokienak diren lanbideak:

- informatikoak
- ekonomilariak
- kontableak
- medikuak
- farmazilariak
- erizainak
- osasun laguntzaileak

– El Jefe de Juventud de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura, o persona en quien delegue, que ejercerá las funciones de Presidente de la Comisión y dirimirá, con voto de calidad, los empates que pudieran producirse.

– Un técnico de la Dirección de Cooperación al Desarrollo de la Lehendakaritza.

– Una persona representante del Consejo de la Juventud de Euskadi / Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, a propuesta de éste y nombrada por el Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura.

– Una persona representante de la Comisión Gestora del Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo del Tercer Mundo, a propuesta de ésta y nombrada por el Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura.

– Un máximo de diez personas representantes de Organizaciones No Gubernamentales que estén llevando a cabo programas de Cooperación al Desarrollo, propuestas por el Departamento de Cultura y nombradas por el Director de Juventud y Acción Comunitaria.

– Un técnico o técnica de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria, que ejercerá de Secretario/a, con voz y sin voto, nombrado/a por el Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura.

En caso de estimarlo conveniente, la Comisión de Selección podrá recabar la colaboración de otras personas expertas en la materia, con voz y sin voto.

2.– Los miembros de la Comisión deberán abstenerse y podrán ser recusados en los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Base 7.– 1.– Para la propuesta de preselección de los y las participantes, en número máximo de 170, para la fase de información y orientación, la Comisión valorará las siguientes características:

a) Titulación académica, cualificación profesional y otros estudios de cada solicitante que más se adecuen a las acciones de cooperación al desarrollo que se estén llevando a cabo durante el presente año, hasta un máximo del 30 por ciento.

Sin tener carácter excluyente, entre las profesiones más apropiadas para los proyectos de desarrollo en los que se insertarán los y las cooperantes se encuentran las siguientes:

- informáticos/as
- economistas
- contables
- médicos/as
- farmacéuticos/as
- enfermeros/as
- auxiliares sanitarios

- pedagogoak
- begiraleak-hezitzaile sozialak
- sistema ingeniariak
- industria-ingeniari
- agronomoak
- psikologoak
- elebitasunean adituak diren hezitzaileak
- al baitariak
- tornero-mekanikoak
- elektrizistak
- arotzak
- iturginak
- gizarte langileak
- diseinugile industrialak
- nutrizionistak

b) Garapenerako Lankidetzarekin zerikusirik duten esperientziak eta jakintza-arloak, %20raino gehienez.

c) Gobernu Kanpoko Erakunde bateko kide izatea, %20raino gehienez.

d) Gazte-elkarte batekoa zein helburu soziala duen beste erakunde bateko kide izatea, %30eraino gehienez.

Batzordeak, egoki iritiz gero, elkarrizketa pertsonala egin diezaieke hautagaiei aipatutako gai horiei buruz, bakoitzak aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

2.– Batzordeak gehienez bi hilabeteko epe barruan egingo du aipatutako aurre-hautaketarako proposamena, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

8. oinarria.– 1.– Batzordeak egindako Aurre-Hautaketarako Proposamena ikusita, Gazteria eta Gizarte-ekintza zuzendariak Ebazpena hartuko du zazpi eguneko epean, Batzordeak dagokion Aurre-Hautaketarako Proposamenaren berri ematen dionetik hasita. Ebazpen horretan, informazio eta orientazio aldirako aurre-aukeratutako partaideen zerrenda ematez batera, aipatutako aldi hori non eta noiz burutuko den zehaztuko da.

2.– Aurre-aukeratutako pertsonen, banan-banan eta berariaz, horren berri emango zaien arren, Lurralde Historikoetako Kulturako Lurralde Zerbitzuetan aukeratutako zerrenda jarriko da, aurreko zenbakian zehaztutakoari jarraituz Ebazpena hartzeko jarritako epea bukatzen denetik hasita.

3.– Aurre-aukeraketa honetarako onartu ez diren eskabideak ezetsizat joko dira.

9. oinarria.– 1.– Garapen Lankidetzari buruz berariaz antolatutako diren bi jardunaldietan parte hartzea izango da informazio eta orientazio aldia:

Lehen jardunaldian aurre-aukeratutako pertsona guztiek parte hartuko dute.

Bigarren jardunaldian aukeratutako pertsona guztiek parte hartuko dute.

- pedagogos/as
- monitores/as-educadores/as sociales
- ingenieros/as de sistemas
- ingenieros/as industriales
- agrónomos/as
- psicólogos/as
- educadores/as especialistas en bilingüismo
- veterinarios/as
- torneros/as-mecánicos/as
- electricistas
- carpinteros/as
- fontaneros/as
- trabajadores/as sociales
- diseñadores/as industriales
- nutricionistas

b) Conocimientos y experiencias relacionadas con la cooperación al desarrollo, hasta un máximo del 20 por ciento.

c) Pertenencia a organizaciones no gubernamentales, hasta un máximo del 20 por ciento.

d) Pertenencia a asociaciones juveniles u otras de finalidad social, hasta un máximo del 30 por ciento.

Caso de estimarlo conveniente, la Comisión podrá realizar una entrevista personal sobre los apartados anteriores a los/as candidatos/as, según la documentación por ellos/as aportada.

2.– La Comisión llevará a cabo la propuesta de preselección de referencia en el plazo máximo de dos meses, a contar desde la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Base 8.– 1- A la vista de la Propuesta de preselección de la Comisión, el Director de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura, en el plazo de siete días hábiles desde la comunicación por la Comisión de la Propuesta de Preselección correspondiente, dictará Resolución, conteniendo el listado de los y las participantes preseleccionados/as para la realización de la fase de información y orientación, así como la fecha y lugar de celebración de dicha fase.

2.– Sin perjuicio de la comunicación expresa e individualizada a las personas preseleccionadas, en los Servicios Territoriales de Cultura en cada uno de los Territorios Históricos, a partir de la fecha límite para resolver señalada en el número anterior, se expondrán las listas de aquéllas.

3.– Las solicitudes que no fueran preseleccionadas se entenderán desestimadas.

Base 9.-1.– La fase de información y orientación consistirá en la participación en dos encuentros organizados, al efecto, sobre cooperación al desarrollo:

En el primer encuentro participarán todas las personas preseleccionadas.

En el segundo encuentro participarán todas las personas seleccionadas.

2.– Parte hartzeak ekar ditzakeen egonaldi- eta janari-gastuak, horrelakorik balego behintzat, Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu; kanpoan geratuko dira, ordea, aurrez hautatutako partaideen joan-etorrietarako gastuak.

10. oinarria.– 1.– Lehen jardunaldia (aurre-aukeratutako pertsona guztieei zuzenduta) bukatu eta zazpi eguneko epean, Batzordeak, gazteak aztertzeko jarritako jardueren arabera, bere iritziz egokienak izan daitezkeen gazteak zeintzuk diren proposatuko dio Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendariari, horrexeri baitagokio gero dagokion Proposamena jaso eta beste zazpi eguneko epean, aurrekontuek eskainitako posibilitateen arabera, gehiengo osoko kantitatea 21.321.670 pta.(128.145,81 euro) delarik, Gobernuoak ez diren Euskal Erakundeek bultzatuta aurten burutzen ari diren lankidetzak ekintzetan parte hartzeko egokienak diren pertsonak izendatzea, 100 gazte gehienez jota. Esperientzia uztailean hasiko da, ahal dela, eta hiru hilabetea izango da gutxi gorabehera, kasu berezietan izan ezik. Esperientzian tutore den GKEarekin araututako baldintzak hartuko dira beti aintzat.

2.– Aukeratutako pertsonen, banan-banan, Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendariaren Ebazpenaren berri emango zaien arren, aukeratutakoen zerrenda EHAAn argitaratuko da eta Lurralde Historikoetako Kulturako Lurralde Zerbitzuetan ikusgai jarriko, aurreko zenbakian zehaztutakoari jarraituz Erabakia hartzeko jarritako epea bukatzen denetik hasita.

11. oinarria.– Esperientzia honetan, jarduera bakoitzaz arduratzen den Gobernu Kanpoko Erakundeak egingo ditu tutoretza eta segimendu lanak. Jardueran parte hartzeko aukeratutako gazte bakoitzak, alde aurretik, Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzan aurkeztuko duen dokumentuan, honako hauek beteko dituela hitz emango du:

a) Hirugarren munduan esperientzia hasi aurretik, tutore den GKE antolatutako prestakuntza fasean parte hartzea.

b) Bete beharreko jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatzea.

c) Jarduera egin behar den Herrian, esperientzia bukatu arte irautea.

d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak errespetatzea.

e) Esperientzia-aldia bukatu ondoren, balorazio txostena aurkeztea, bizi izandako jarduera nolakoa izan den eta nola burutu den azalduz eta, aurrerantzean antolatzen diren beste proiektu batzuetarako, akatsak eta hutsuneak nola konpon daitezkeen zehaztuz.

f) Aurtengo egitasmoa amaitu ondoren, esperientzia bakoitzaren eta programaren garapenaren ebaluazio-jardunaldietan parte hartzea.

2.– Los gastos de mantenimiento y alojamiento que, en su caso, pudieran derivarse de la participación correrán a cargo del Gobierno Vasco, quedando excluidos los gastos de desplazamiento de las personas preseleccionadas.

Base 10.– 1.– En el plazo de siete días hábiles desde la finalización del primer encuentro (destinado a todas las personas preseleccionadas), la Comisión propondrá al Director de Juventud y Acción Comunitaria, a quien corresponderá su designación en el plazo de siete días desde la recepción de la Propuesta correspondiente, a aquellas personas consideradas más idóneas, según las acciones elegidas para su observación, en número máximo de 100, en función de las disponibilidades presupuestarias, cuyo importe global máximo está establecido en 21.321.670 de pesetas (128.145,81 Euros), para integrarse en las acciones de cooperación al desarrollo impulsadas por Organizaciones No Gubernamentales Vascas que se estén desarrollando durante el presente año. La experiencia, preferentemente a realizar a partir del mes de julio, tendrá una duración aproximada de tres meses, salvo casos excepcionales, según las condiciones que se acuerden con cada ONG tutora de la experiencia.

2.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la Resolución del Director de Juventud y Acción Comunitaria a las personas seleccionadas, las listas de aquellas serán también publicadas para su general conocimiento en el BOPV y expuestas en los Servicios Territoriales de Cultura en cada uno de los Territorios Históricos a partir de la fecha límite para resolver señalada en el número anterior.

Base 11.– La integración en las acciones de cooperación al desarrollo, que estará bajo la tutoría y seguimiento de la Organización No Gubernamental responsable de cada acción, requerirá, con carácter previo, mediante documento presentado ante la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria, el compromiso de cada persona seleccionada a:

a) Participar en una fase de formación, que estará a cargo la ONG tutora correspondiente, inmediatamente anterior al inicio de la experiencia en el Tercer Mundo.

b) Adaptarse a las condiciones de vida derivadas de la acción adjudicada.

c) Permanecer en el país de destino hasta la finalización del periodo de la experiencia.

d) Cumplir las recomendaciones sanitarias correspondientes.

e) Presentar, al finalizar la experiencia, un informe valorativo de su desarrollo, así como de la acción observada y de necesidades a cubrir, ante la posible elaboración de un proyecto a desarrollar en años posteriores.

f) Participación en las jornadas de evaluación sobre el desarrollo del programa y de cada una de las experiencias una vez finalizado el programa del año en curso.

12. oinarria.— Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu, jarduera burutu behar deneko tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jarri arteko joan-etorri gastuak, herrialde horretara joateko behar den bisatua eta sartzeko zergak barne, baita hautatutako parte hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruia ere.

Esperientzia bakoitzaz arduratzen den Gobernu Kanpoko Erakundeek egindako proposamena eta beren baliabideak kontuan hartuta, jarduera tokiko ostatu eta janari kontuak euren esku geratuko dira eta beren bi-tartekoen araberakoak izango dira, beti ere, kasuan kasu, horretarako izenpetuko diren Hitzarmentan ezarritakoak errespetatuz. Gazteak, bere baliabideak kontutan harturik, ahal duen neurrian lagunduko du gastu hauetara aurre egiten.

13. oinarria.— Esperientzia honetan parte hartzeak berau arautzen duten nondik-norako guztiak onartzea dakar. Lankidearen partaidetza, batez ere, berari egokitutako proiektuan garatzen diren zereginetan gauzatu da.

14. oinarria.— Hautatutako pertsonetakoren batek Agindu honetan ezarritako baldintzak errespetatu ezean, bete gabetzat joko da Agindua eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, eta, hala bada-gokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitako prozedurari jarraituz, galdu egingo du zehaztutako onurak jasotzeko eskubidea eta Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dio bidaia eta aseguru-gastuei dagokien diru-kopurua baita horri dagozkion interes legalak ere.

15. oinarria.— Agindu honen bidez sortutako Programaren kudeaketa lanak Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzari dagozkio.

Base 12.— El Gobierno Vasco sufragará los gastos del viaje de ida y vuelta hasta el punto de puesta en contacto con la Organización No Gubernamental en el país de destino, incluidos los derivados, en su caso, del visado y tasas de entrada del país de destino, así como de la póliza de accidentes y enfermedad de cada persona seleccionada participante.

En consonancia con la propuesta de la Organización No Gubernamental tutora de la experiencia y de sus propios medios, en los términos que se establezcan en los convenios que al efecto se suscriban, el alojamiento y manutención en el país de destino serán los disponibles por aquéllas, debiendo cada persona seleccionada contribuir económicamente en el mismo según su disponibilidad.

Base 13.— La participación propia de los y las voluntarios/as supone la aceptación de las normas que lo regulan, entendiéndose que la participación de los y las cooperantes se materializará, fundamentalmente, en las labores que desarrollen en el proyecto en el que se inserten.

Base 14.— El incumplimiento, por las personas seleccionadas, de las obligaciones establecidas en la presente Orden constituirá supuesto de incumplimiento que, previa aplicación de los trámites establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y, en su caso, en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, dará lugar a la declaración de pérdida del derecho a los beneficios en ella establecidos y a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco el importe de los gastos relativos al costo del pasaje y de aseguramiento, más los intereses legales que fueran de aplicación.

Base 15.— Corresponderá a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria la realización de las tareas de gestión del Programa convocado a través de la presente Orden.

## II. ERANSKINA

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN  
PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

## 1.- Datu pertsonalak:

Abizenak: .....  
 Izena:..... N.A.N. zkia.: .....  
 Helbidea: k/ .....  
 Herria: ..... Posta-Kodea  
 .....Tel.:.....  
 Jaiotze-eguna: .....  
 Ohiko etxetik kanpo egotea espero baduzu, adierazi,  
 kontaktuan jartzeko helbidea eta telefono zkia.  
 Helbidea: .....Tel. zkia.:.....

## 2.- Hizkuntza/k :

Hizkuntza.....

Irakurri: Erdizka  Ondo  Oso ondo   
 Hitzegin: Erdizka  Ondo  Oso ondo   
 Idatzi: Erdizka  Ondo  Oso ondo

Hizkuntza.....

Irakurri: Erdizka  Ondo  Oso ondo   
 Hitzegin: Erdizka  Ondo  Oso ondo   
 Idatzi: Erdizka  Ondo  Oso ondo

## 3.- Dokumentuekin egiaztatutako meritua:

## a) Ikasketa-agiriak edo lanbide-prestakuntza:

Titulazio akademikoa edo lanbide gaitasuna  
 (adierazi ikasketak amaitutako data):

Informatikako ezaupideak:

Burututako beste ikasketa edo trebaketa-ikas-  
 taro batzuk:

Esperientzi profesionala (Adierazi eginiko lan-  
 nak eta hauen iraupena):

b) Garapen-lankidetzarekin zerikusirik duten espe-  
 rientziak (Zehaztu):

c) Gobernuz Kanpoko Elkarte bateko kide bazara  
 edo/eta izan bazara (Adierazi zein elkartetan, parte-har-  
 tze aldia eta garatutako lanak):

d) Gazte-elkarteetako edo helburu soziala duten bes-  
 te erakunde batzuetako kide izatea (Adierazi zein elkar-  
 tetan, parte-hartze aldia eta garatutako lanak):

## ANEXO II

SOLICITUD DE PARTICIPACION EN EL PROGRAMA  
JUVENTUD VASCA COOPERANTE

## 1.- Datos personales:

Apellidos: .....  
 Nombre: ..... D.N.I.: .....  
 Fecha de nacimiento: .....  
 Domicilio: c/.....  
 Población: ..... Código Postal .....  
 Tfno.:.....  
 En el supuesto que preveas estar fuera del domicilio ha-  
 bitual, señala la dirección y n.º de teléfono de contac-  
 to:  
 Dirección: ..... Tfno.: .....

## 2.- Conocimiento de idioma/s:

Idioma .....

Lee: Regular  Bien  Muy bien   
 Habla: Regular  Bien  Muy bien   
 Escribe: Regular  Bien  Muy bien

Idioma .....

Lee: Regular  Bien  Muy bien   
 Habla: Regular  Bien  Muy bien   
 Escribe: Regular  Bien  Muy bien

## 3.- Méritos acreditados documentalmente:

## a) Formación académica y experiencia profesional:

Titulación académica o cualificación profesio-  
 nal (Indicar fecha de terminación de los estudios):

Conocimientos de informática:

Otros estudios o cursos realizados:

Experiencia profesional (Indicar trabajos reali-  
 zados y duración de cada uno de ellos):

b) Conocimientos y experiencias relacionadas con la  
 cooperación al desarrollo (Especificar):

c) Pertenencia actual y/o anterior a organizaciones no  
 gubernamentales (Señalar organizaciones, periodos de  
 pertenencia y labores desarrolladas):

d) Pertenencia a asociaciones juveniles u otras de fi-  
 nalidad social (Señalar asociaciones, periodos de actua-  
 ción en ellas y labores desarrolladas):

4.– Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzeko arrazoi pertsonalak

Programa honetako aurreko edizioetara aurkeztu zara: Bai  Ez

5.– Aintzakotzat dituzun beste hainbat datu:

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

«Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programan parte hartzea.

ETA HITZ EMATEN DU:

Parte hartuko duela bai trebaketaldian baita esperientzia praktikoan ere, hautatua izanez gero, Kultura Sailburuak «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako aurtengo deialdiaren Aginduaren arabera.

Aurkeztu behar diren dokumentuak:

- Euskal Autonomia Elkarte Autonomoko udalen bateko erroldan enpadronaturik dagoela egiaztatzea.
- N.A.N.aren fotokopia.
- Bi argazki
- Hizkuntzak menperatzen direla frogatzeko ziurtagiriak
- Curriculum Vitae.
- Aurkeztutako merituen egiaztatze dokumentuak edo ziurtagiriak (baloratzeko orduan eskabide-inprimakian aipatu eta ondoren egiaztatutakoak bakarrik hartuko dira kontuan).

Aurrehautatua izanez gero:

Adieraz ezazu, elkarrizketa egiteko leku eta ordutegi egokiena:

Hiria: Bilbao  Donostia-San Sebastián  Vitoria-Gasteiz

Ordutegia: Goizez .....(e)tatik .....(e)tara. Arratsaldez .....(e)tatik .....(e)tara

, 2001ko                      ren a.

Sinadura:

HAUTAKETA BATZORDEKO BURU JAUNA

4.– Motivación personal para participar en este Programa Juventud Vasca Cooperante:

Te has presentado a alguna edición anterior de este programa?: Sí  No

5.– Otros datos que consideres de interés:

SOLICITA:

Participar en el programa «Juventud Vasca Cooperante».

Y SE COMPROMETE:

A asistir tanto a la fase de información y orientación como a la experiencia práctica, caso de ser seleccionado/a, de acuerdo con lo dispuesto en la Orden de la Consejera de Cultura, por la que se convoca el programa «Juventud Vasca Cooperante», para el año en curso.

Documentación a aportar:

- Certificado de empadronamiento en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Fotocopia del D.N.I.
- Dos fotografías.
- Certificado/s de conocimiento de idioma/s.

Curriculum Vitae.

Documentación acreditativa de los méritos alegados (sólo se tomarán en consideración, a los efectos de valoración, aquellos méritos relacionados en la solicitud acreditados documentalmente).

En el supuesto que seas preseleccionado/a:

Indica el lugar y horario más adecuado para ti para la realización de la entrevista personal:

Ciudad: Bilbao  Donostia-San Sebastián  Vitoria-Gasteiz

Horario: Por la mañana: de las .....h. a las.....h. Por la tarde: de las .....h. a las.....h.

En                      , a                      de                      de 2001.

Firma:

SR. PRESIDENTE DE LA COMISIÓN DE SELECCIÓN.